



Lehengo egunean, adiskide batek zera aipatzen zidan idazle euskaldun baten liburuari buruz: “Idazle horrek darabilen euskarak itzulpena dakar gogora...”.

Nik neuk ere askotan topatu izan ditut mota horretako kasuak, hau da, itzulpenetako euskara gogora ekartzen duten euskal idazleek idatzitako liburuak. Zer esan nahi du horrek? Liburuak erdaraz idatzi eta segituan euskarara itzultzen dituztela, euskal idazle horien hizkuntz-sena *epel* edo *ligh* samarra delako, euren liburuak itzulpenekin antz handiagoa izateraino, euskaraz zuzen-zuzenean idatzitako liburuekin baino? Edo esan nahi ote du komunikabideen euskara estandarra (batua) euskalkiei nagusitu zaiela, euskalkiak ia osorik irensteraino? Edo, akaso esan nahi du euskara egokitze-prozesu sakon batean dagoela biziraun ahal izateko, eta halabeharrez, bidean “zerbait” galduz doakiola...? Ziur aski, denetik pixka bat izango da...

Ni, hasteko, ez naiz inkisidore bat. Eta norbait bere idazlanen zirriborroa erdaraz idaztera behartuta sentitzen bada (arrazoi sekretu eta intimoren batengatik), eta gero hark berak “itzuli egiten badu” zirriborro hori euskarara, eta azkenik berridatzi eta landu egiten badu nahi zuen forma ematen dion arte, dela zuzentzaileen laguntzaz dela hizkuntzaren ezagutzaille finen laguntzaz dela berak bakarrik bere kasa... bueno, nik hori ez dut ikusten ez gaizki ez ondo. Zeren, printzipioz, epaituko dudana azken emaitza izango baita. Eta norbera azken emaitza horretara nola iristen den, hori beste kontu bat da (baldin eta tartean “*beltzik*” ez badago, noski...).

Alde batetik, hori epaitzea ez dagokit niri (legokidakeen arren). Beste alde batetik, nik ez dut esaten: “Sendiak eta urliak hori egiten dute”. Ez, ez. Nik ez dut inor hatzaz erakusten, salatzen. Egia esateko, euskarari ez ezik, hizkuntza modernorik gehienei eragiten dien fenomeno baten aurrean gaudela esango nuke. Passolini bera kexu azaltzen zen orain dela urte asko, hizkuntza-monotonia horretxek linbora botata zeuzkalako Italiako dialekto ugariak, oparoak eta anitzak –berauen kalterako eta mass-mediekin estu lotutako italiara aglutinatzaile, errepikakor eta grisaren onurarako–. Bestalde, litekeena da fenomeno hori gure gizartearen isla izatea? gizarte hiper urbano, hiper teknologiko eta deserrotu baten isla...? porlanaren isla, alegia...?

Dena den, argi gera bedi nik oso gustura irakur ditzakedala “itzulpena gogora dakarten” euskara-mota hori darabilten euskal idazleak; areago, idazle horien euskara oso *energetikotzat* jo dezaket, hau da, hizkuntzaren indarra baldin badute, euskaldun onaren arnasa baldin badute eta, finean, estimua eragiten duen eta etorkizunean sinestera gonbidatzen duen hizkuntza orok helarazi beharreko sinesgarritasuna helarazten baldin badidate, hizkuntza horretan –eta idazle horietan, beraz– sinesteko prest nago.

Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar itzulpenaren eta hizkuntza “jatorraren” arteko mugak nahiko “lainotsuak” direla. Esaterako, pentsa ezazue une batez Patziku Perurenak euskarara autoitzuli egiten duela erdaraz atera zaion artikulu bat. Zer pentsatu duzue, haren itzulpena izango litzatekeela euskara batura egiten diren ohiko itzulpen monotono horietako bat? Euskararen hizkuntz-jeinua halako punturaino eramango zuen, ezen, azkenean ezinezkoa izango bailitzateke jakitea itzulpen baten ala euskaraz zuzenean idatzitako testu baten aurrean ote gauden. Edo, beste adibide bat jartzearren, pentsa ezazue Patxi Zubizarretari bururatzen zaiola erdaraz zirriboratu duen liburu bat euskaraz berridazteaz eta lantzeaz; benetan uste al duzue haren itzulpena grisa eta

monotonoa izango litzatekeela eta erraz antzematekoa izango litzatekeela itzulpen bat den ala euskaraz zuzenean idatzitako testu original bat ote den?

Laburbilduz, eta honaino iritsita, akaso begia zuzendu beharko genuke galdera ororen Ama Galderara: zer izan zen lehenik, arrautza ala oiloa?



(Azken gogoeta bat: nola eragiten die globalizazioak hizkuntzen munduari? Ez nagokio euskarari bakarrik, baizik eta hizkuntza guztiei, oro har. Gaur egun ingelesak daukan hedadura handia kontuan harturik, euren hezkuntza-sisteman ingelesa ondo txertatuta daukaten herrialdeetan ingeleskadak disparatu egin direla pentsatzea ez al da berez nahiko arrazoizkoa? Edota ingeleskadez, esapideez, terminologiaz, eta abarrez haratago, zenbateraino eragin diezaioke elebitasunak beste edozein hizkuntzaren arimari, hau da, bere sintaxiari?).